

Ikastetxe pribatuek irakaskuntzan izan duten gastua %8,3 hazi da 2001-2003 denboraldian

Ikastetxe pribatuek 2003. urtean izan duten gastua BPGaren %1,56 izan da.

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatuen gastu osoa 737 milioi eurokoa izan zen 2003. urtean; edo beste era batera esanda, 2001. urtearekin erkatuta gastu hori %8,3 hazi zen. BPGari dagokionez, 2003. urteko BPGaren %1,56 izan zen gehikuntza hori.

Gastuaren %93,9 gastu arruntari dagokio eta gainerako %6,1 kapital gastuari. Gastu arrunta 692 milioi eurokoa izan zen; bada, horren %91 irakaskuntzarako erabili zen, %1,3 jarduera osagarrietarako eta gainerakoa, %7,7, zerbitzu osagarrietarako (jantokia eta garraioa batez ere).

Ikastetxe motaren arabera, unibertsitate aurreko mailak dituzten ikastetxeetan gastu osoaren %86 erabili zen, %12 goi mailako ikasketak dituzten ikastetxeetan eta %2 irakaskuntza artistikoetan.

1. grafikoa: EAEko ikastetxe pribatuen irakaskuntzarako gastuaren bilakaera, ikasleen arabera (€)

¡Error! Marcador no definido.

Iturria: EUSTAT

ADIERAZLEAK

Gastu unitarioek gorako joera mantendu dute, baina aurreko biurtekokoa baino hazkunde txikiagoarekin. 2001etik 2003ra bitartean, ikasle bakoitzeko irakaskuntzaren gastuak %13,3 hazi ziren, eta taldekako gastuak %6,2.

2003. urtean, **eskola-unitate edo talde bakoitzeko irakaskuntzaren kostuak** 55.892 eta 65.688 eurokoak izan ziren haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan, hurrenez hurren. Erdi mailako irakaskuntzan kostu hauek izan ziren: 78.914 euro Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), 78.831 euro Lanbide Heziketan (LH) eta 95.196 euro batxilerrean. Helduak hezteko unitatearen kostua (Helduen Hezkuntza) 18.152 eurokoa izan zen. Oro har, ratio txikienak ikastetxe erlijiosoenak izan ziren.

Ikasle bakoitzaren irakaskuntzarako kostuak 2.801 eurokoak izan ziren haur hezkuntzan, 3.270 eurokoak lehen hezkuntzan, 3.702 eurokoak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 4.232 eurokoak Lanbide Heziketan eta 4.001 eurokoak batxilerrean. Unibertsitatean ikasle bakoitzeko gastua 3.662 eurokoa izan zen eta 1.321 eurokoa Irakaskuntza Artistikoetan.

FINANTZAKETA

Ikastetxe pribatuaren **sarrera osoa** 703 milioi eurokoa izan zen; horien %98 sarrera arruntetan eman ziren eta %2 kapital sarreretan. Sarrera arrunten jatorri nagusia, %66, diru-laguntza publikoak dira. Gero irakaskuntzako kuotak (%20,1) eta zerbitzu osagarrietakoak (%7,9) daude. Finantzaketaren eskema 2001. urtekoaren antzekoa da.

Ikastetxe pribatuak 44,6 milioi euroko inbertsioak egin zituzten 2003. urtean. Horietako 12,6 milioi kapital diru-laguntzen bidez edo kapital-ondasunen salmentaren ondoriozko sarreren bidez ordaindu ziren; horrela, ikastetxe pribatu guztietan %71,8ko finantzaketa behar izan zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatuetan eskolako garraio eta jantokirako **ikasle bakoitzeko batez besteko kuotak** 410 eta 587 eurokoak izan ziren. Ikasle bakoitzeko irakaskuntzarako kuotak 403 eta 321 eurokoak izan ziren haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan; 342 eurokoak DBHn, 537 eurokoak erdi mailako Lanbide Heziketan, 623 eurokoak goi mailako Lanbide Heziketan, 614 eurokoak Irakaskuntza Artistikoetan, 760 eurokoak batxilergoan eta 3.232 eurokoak unibertsitateko ikasketetan.

1. taula: Aldagai nagusien bilakaeraren laburpena

	1991	1993	1995	1997	1999	2001	2003	Δ 2003/2001	(1) Δ 2003/1993
Guztizko gastua (mila €)	408.820	502.212	480.732	559.807	596.793	680.274	736.529	8,2	3,9
Ikasleko irakaskuntza-gastua (€)	1.250	1.558	1.780	2.131	2.492	2.911	3.300	13,3	7,8
Gelako irakaskuntza-gastua (€)	34.848	41.476	46.122	54.634	59.714	65.635	69.744	6,2	5,3

(1) Urteko tasa metatua

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tlf:+34-945-01 75 47 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp